



ISEI·IVEI

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

HEZKUNTZA ADIERAZLEEN EUSKAL SISTEMA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

Hezkuntza Adierazleen Euskal Sistema.

Aurreratuen dauden gizarteek aurrerapen-maila bere hezkuntza sistemek duten kimen eta eraginkortasunarekin lotzen dutela adierazteko joera dute. Hain zuzen ere, estreinatu berri dugun milurteko honetan hezkuntzari etengabe aldatzen ari den gizarte batean, bertan bereganatutako ezagupenak urte gutxitan zaharkituak gelditzen direla, erraztasunez moldatzeko gauza diren pertsonak hezteko eskatzen diote. Eskola modernoak aurrean duen erronka hau konplexua eta zaila da, hala berau lortzeari nola ebaluatzeari dagokionez. Hori dela-eta, azken urteotan hezkuntza sistemak hezkuntza prozesuen konplexutasuna argitu eta azaltzeko gauza diren tresnak egiteko beharra aztertzen ari dira. Era berean, hezkuntza adierazleen sistemek hezkuntzako administrazioak dituen maila guztietan erabakiak hartzerakoan orientatzeko balio behar dute. Horrela, adierazle bat, edo adierazle-sistema bat kasu honetan, hezkuntzako errealitatearen zati bat edo batzuk ulertzeko, azaltzeko eta irudikatzeke balio duten izaera nagusiki kuantitatiboa duten baliabide-multzoa da.

Hezkuntzaren oinarritzko alderdiei eta Euskal Autonomia Erkidegoan duen bilakaera historikoari buruzko ikuspegi orokorra eskaintzeko beharrak, eta Europako Batasuneko, ELGEko beste Herrialde eta Erkidegoekin eta beste batzuekin alderaketak egiteko interesak Hezkuntza Adierazleen Euskal Sistema sortzea eragin zuten. Halaber, hala Hezkuntza Administrazioari nola gizarteari oro har, hezkuntzaren informazioari eta horretarako zuzentzen dituzten baliabideei buruzko informazioa izan behar dutelako, informazio publikoa eta garrantzitsua eskaintzeko bokazioa duela ere jaiio da. Azken batean, kontua da euskal hezkuntza sistemaren erradiografia bat lortzea, bertan bere ahuluneak eta puntu sendoak irudikatuko dituzte eta informazioa emango dute aurkitutako arazoan balizko konponbideak eztabaidatzeko asmoz.

Hezkuntzaren adierazleen euskal sistema egitea Unibertsitateaz kanpoko Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundearen (ISEI) izaera iraunkorreko jarduketa-ildo bat da, berau euskal hezkuntza-sistema ebaluatu eta ikertzeko erakunde honek duen funtzioaren ondorioa da.

Proiektua ISEIren ardurapean dago eta Hezkuntzako Ikuskaritza Teknikoaren, Hezkuntzaren Estatistikaren Zerbitzuaren zein Euskal Estatistika Erakundearen (EUSTATen) lankidetzak dauka, hala alderdi teknikoetako aholkularitzarako nola datuak eskuratzeko.

Hasiera bateko eginkizuna esparru teoriko batera eta hezkuntzako adierazleen lehen definizio batera iristea izan da. Hezkuntza Adierazleen Euskal Sistemaren azken osaketa egiteko, lehendabizi, sartu beharreko bideragarrien analisi zehatza egin eta posible eta esanguratsutzat jotzen ditueni buruz Hezkuntza Sailak berak erabakia hartu behar du. Zeregin progresiboa izango da lan neketsua delako eta egun jasotzen ez dituzten datuak daudelako.

Laburbilduz, orain aurkeztu behar dugun dokumentua aipatutako hezkuntza adierazleen euskal sistemarako lehen hurbilpena da, bertan informazio egiaztatua zuten adierazle horien lehen hautapena egin dutela. Horrela, sistema osatuko luketen beste batzuk eta, bereziki, Europako Batasunak lehentasuna ematen dienak lantzea falta da.

Adierazle-sistema bat hezkuntzako bezain konplexua den errealitatea modu frogagarri eta koherentean adierazteko gauza izan dadin sistema osatzen duten adierazleak modu koherentean identifikatzea eta erlazionatzea ahalbidetzen duen egitura izan behar du oinarri.

Sistema baten alderdi anitzak diseinatzerakoan aurkeztu ahal dituzten sailkapenak asko badira ere, sailkapen erreza egitea eta beste hezkuntza sistemetakoeekin erraz alderatzea ahalbidetzen duten lau tipo hartzeko hautua egin dugu: testuingurua, baliabideak, prozesuak eta emaitzak.

Testuinguruko adierazleak, testuinguru sozioekonomikoaren egoera esplizitatzen du, hauek bezalaxe: eskolatze eta demografiako baldintzak, sozioekonomikoak eta kulturalak; biztanleek hezkuntzari buruz duten jarrera eta itzaropenak.

Baliabideen adierazleak, sistemako sarrerak (inputak) edo helburuak lortzeko dituzten baliabideak jakinarazten ditu: baliabide materialak (ekonomikoak eta azpiegiturak) eta giza baliabideak (irakasleak eta ikasleak).

Prozesuen adierazleak, horiek zentroen antolaketa eta funtzionamenduaren, hezkuntza-jarduketa eta eskolako giroaren berri ematen dute, kuantitatibo baino izaera kualitatibokoagoak dira, eta lantzen zailagoak dira.

Emaitzen adierazleak, hezkuntza sistemaren irtenbide edo izandako lorpenak: ebaluatzeko probak, oinarritzko, jarrerazko gaitasunak eta baloreak eskuratzea, lortutako tituluak, ziurtagiriak, adinaren egokitasuna derrigorrezkoak diren etapetan, eta lan-markatuan murgiltzea eta lansariak.

Hemen agertutako adierazleen aurkezpen ohikoena honela egin da: testu batean adierazlea definitu eta aurkeztu egin dugu eta taula batzuetan datu adierazgarrienak bildu ditugu, hala bilakaeraren aldetik nola datu-bereizketaren aldetik. Datu-taulen osagarri, era askotako grafikoak baliatu ditugu horiek hobeto uler daitezen.

Adierazleen sistema hau prestatzeko kontuan hartutako premisetako bat, EAEko datuak eta beste herrialdeetakoak alderatzeko modua edukitzea izan da. Ildo horretan, ahal izan den guztietan, EAEko datuak bere gizarte eta ekonomia-ingurunearekin batera (EB eta Ekonomi Lankidetzeta eta Garapeneko Erakundea -ELGE-, Espainako Autonomia Erkidegoak) aurkeztu ditugu. Konparazio horien fidagarritasuna bermatzeko, datu-iturri bera baliatu dugu edo, ez existitzekotan, adierazlea, prestatzen duen erakundeak (Eurostat, ELGE, INE, INECSE) zehaztutako jarraibideei lotuz landu dugu.

Aurreikusitako adierazleak eta horien definizioak

Testuinguruko adierazleak

C1: Eskolatzeko adinean dagoen biztanleriaren (gaztea) proportzioa

- *Definizioa:* Biztanle guztien 100 pertsonako 0 eta 29 urte bitartean duten pertsona kopurua.

C2: BPG per capita

- *Definizioa:* Pertsona bakoitzari dagokion EAeko barne ekoizpenaren balioa eurotan adierazia. BPG banatzen den biztanleria osoaren barruan egoiliar iraunkorrak sartzen dira.

C3: Biztanleriaren erlazioa jarduera ekonomikoarekin

- *Definizioa:* Biztanleria aktibo eta biztanleria ez-aktibotzat hartzen duten 16 urtetik aurrerako biztanleriaren portzentajea, eta baita okupatu eta langabetuen portzentajea ere.

C4: Biztanleria helduaren ikasketa-maila

- *Definizioa:* Nolabaiteko irakaskuntza-maila osatu duen 25 eta 64 urte bitarteko biztanleria helduaren portzentajea.

C5: Lanbide heziketa. LHn ari diren pertsonen kopurua

- *Definizioa:* Lanbide Heziketan hiru azpistemetan ari diren pertsonen kopurua: Hasierako Lanbide Heziketan, Heziketa Etengabea eta Okupazio Heziketan.

C6: Etengabeko prestakuntzaren partaidetza

- *Definizioa:* Inkesta egin aurreko lau asteetan prestakuntza edo heziketa-jardueretan parte hartu duen 25-64 adin-tarteko biztanleria-portzentajea.

Baliabideen adierazleak

Rc1: Gastu publikoa hezkuntzan BPGari begira

- *Definizioa:* Hezkuntzara zuzendutako BPGaren portzentajea.

Rc2: Gastu publikoa hezkuntzan

- *Definizioa:* Hezkuntzara zuzendutako gastu publikoaren portzentajea.

❑ Rc3: Hezkuntzako gastua ikasle bakoitzeko

- *Definizioa:* ikasle bakoitzeko egiten duten batez besteko gastua eurotan.

❑ Rc4: Irakasle modura lanean ari diren biztanleen proportzioa

- *Definizioa:* Hezkuntza maila desberdinetan irakasle modura lanean ari diren biztanle aktiboen portzentajea.

Hezkuntzako Prozesuen adierazleak

❑ P1: Zuzendaritzako eginkizunak

- *Definizioa:* Karguan iraun duten denbora. Zuzendariak hainbat funtziori eskaintzen dioten arduraldiari buruzko datuak. Karguaren egonkortasuna. Zuzendaritza izendatzeko modua.

Hezkuntzako Emaitzen adierazleak

❑ Rs1: Emaitza akademikoak lehen hezkuntza bukatzean

○ Rs1.1. Lehen hezkuntza bukatzean dauden gaitutuen portzentajea

- *Definizioa:* Lehen Hezkuntza bukatzean arlo bakoitzean dauden gaitutuen portzentajea (Natur, Gizarte eta Kultur Ingurunearen Ezaguera; Arte-Hezkuntza; Gorputz Hezkuntza; Gaztelania eta Literatura; Euskara eta Literatura; Atzerriko Hizkuntzak; Matematika).

○ Rs1.2. Lehen hezkuntza bukatzean duten kurrikuluko ezagupenen maila

- *Definizioa:* Arlo hauetako kurrikuluko ezagupenen maila: Matematika, Gaztelania eta Ingelesa Lehen Hezkuntzako 6. mailan.

❑ Rs2: Emaitza akademikoak DBHko lehen zikloa bukatzean

○ Rs2.1. Gaitutuen portzentajea DBHko 1. zikloa bukatzean

- *Definizioa:* DBHko 1. zikloa bukatzean arlo bakoitzean dauden gaitutuen portzentajea (Natur Zientziak; Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia; Gorputz Hezkuntza; Plastika eta Ikus-Hezkuntza; Gaztelania eta Literatura; Euskara eta Literatura; Atzerriko Hizkuntzak; Matematika; Musika; Teknologia).

○ Rs2.2. 14 urte dituztenek kurrikuluaz duten ezagutza-maila. (DBHren 2. ikasturtea)

- *Definizioa:* DBHko 2. mailako Gaztelera eta Literatura (irakurmenean eta hizkuntza arauak) eta Matematikaren alorreko ezagupenen maila.

- ❑ **Rs3: Eraitza akademikoak DBHko laugarren maila bukatzean**
 - **Rs3.1. Gaitdituen portzentajea DBH bukatzean**
 - *Definizioa:* DBHko 4. maila bukatzean arlo bakoitzean duten gaitdituen portzentajea (Natur Zientziak; Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia; Gorputz Hezkuntza; Plastika eta Ikus-Hezkuntza; Gaztelania eta Literatura; Euskara eta Literatura; Atzerriko Hizkuntzak; Matematika; Musika; Teknologia, Hautazkoa Atzerriko Hizkuntza, Informatika Hautazkoa, Hautazkoa eta Erligioa).
- ❑ **Rs4: Eraitza akademikoaren bilakaera derrigorrezko hezkuntzan**
 - *Definizioa:* Lehen Hezkuntzako 6. mailako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailako eraitza akademikoaren alderaketa ikasleek 1997-2002 urteetan mailak gaitditu eta igarotzeari dagokionez.
- ❑ **Rs5: Eskola uzte goiztiarra**
 - *Definizioa:* Ikasketa mailarik gorena DBHko graduatua (CINE 2) duten eta ondorengo irakaskuntza edo zein prestakuntzarik jasotzen ez duten 18-24 urteko biztanleen portzentajea.
- ❑ **Rs6 Lanbide Heziketa. Laneratze maila**
 - *Definizioa:* Hasierako eta Okupaziozko L.H. Ikasketak egin dituzten ikasleen enplegu aukeren gradua.
- ❑ **Rs7 Zientzia eta Teknologiaiko graduatuak**
 - *Definizioa:* Zientziatako, Matematikako eta Teknologiaiko goi tituludunen tasa, 20-29 adineko 1000 biztanleko.
- ❑ **Rs8: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ostekoa amaitzea**
 - *Definizioa:* Gutxienez Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren ostekoa (CINE 3 eta 4) amaitzea lortu duen 20 eta 24 adin tarteko biztanleriaren proportzioa.
- ❑ **Rs9: Irakurketa-gaitasuna 15 urterekin PISA eskalan**
 - *Definizioa:* PISA 2003 eskalan, irakurketa-gaitasuneko 1. maila eta beheargoko ikasleen portzentajea.
- ❑ **Rs10: PISAren eraitza orokorrak**
 - **Rs10.1: Matematikako gaitasun orokorrak 15 urterekin**
 - *Definizioa:* Matematikan PISA 2003 azterketan ikasleek 15 urterekin erdietsitako batezbesteko mailak.
 - **Rs10.2: Problemak ebazteko gaitasun orokorrak 15 urterekin**

- *Definizioa:* PISA 2003 azterketan 15 urteko ikasleek Problemen ebazpenean lortutako batezbesteko mailak.
- **Rs10.3: 15 urteko ikasleen Matematikako emaitza orokorrak eta ekitatea**
 - *Definizioa:* PISA 2003 azterketan, 15 urteko ikasleen Matematikako emaitza orokorren batezbesteko sakabanaketa. Horiek adierazteko irizpideak ekitate absolutua eta ekitate erlatiboa dira.
- **Rs10.4: Irakurmena 15 urterekin**
 - *Definizioa:* Irakurmenean PISA 2003 azterketan ikasleek 15 urterekin lortutako batezbesteko mailak.
- **Rs10.5: Zientzietako gaitasun orokorrak 15 urterekin**
 - *Definizioa:* Zientzietan PISA 2003 azterketan ikasleek 15 urterekin lortutako batezbesteko mailak.